




IPIak %9,1eko gehikuntza tasa jaso zuen maiatzean

Industria produkzioaren indizea
Urte bakoitzeko maiatza




Iturria: Eustat.

Maiatzean, EAEko industria ekoizpena %9,1 hazi zen aurreko urtearen aldean. 2008tik lortu den ekoizpen mailarik altuena da. Energiaren dinamismoa (%20,2) eta ekipu ondasunena (%14,4) nabarmentzen dira, baina kontsumo ondasunek (%7,3) eta bitarteko ondasunek (%3,9) ere aldakuntza tasa positiboki eskuratu zituzten.

Afiliazioa %2,2 hazi zen ekainean, urte arteko tasan

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko ekaina. Mila




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzako afiliazioen kopurua %2,2 hazi zen ekainean urte batetik bestera, eta ekain bateko kopururik handiena lortu zuen. Sexuaren arabera, igoera handiagoa izan zen emakumeen artean (%2,4) gizonen artean baino (%1,9), eta sektoreka zerbitzuak lortu zuten aldakuntza tasarik handiena (%2,6).



Langabezia erregistratua %8,8 gutxitu zen ekainean

Langabezia erregistratua Euskadin
Urte bakoitzeko ekaina. Mila




Iturria: SEPE.

Ekainean, langabezia erregistratua %8,8ko jaitsiera izan zuen aurreko urtearen aldean. Guztira, 111.600 pertsona inguru zeuden izena emanda, gutxi gorabehera 2019an zegoen kopuru bera. Horietatik 42.300 gizonak dira eta 64.300, berriaz, emakumeak. Bestalde, gazteen langabezia batez bestekoa baino azkarrago murrizten ari da (-%11,9).

Europako ekonomia jarduerak positiboan jarraitzen du

Euroguneko PMI konposatua
Indizea



Iturria: Markit.

Euroaren eremuko PMI konposatua 52,0 puntuko balioa izan zuen ekainean, eta batez besteko historikoaren gaineratik jarraitzen du. Adierazleak intentsitatea galdu badu ere, oraindik hedapen eremuan dago. Zerbitzuak (53,0) moteldu egin ziren, baina eskaera kopuru handia dute oraindik, eta, horri esker, enplegua handitu zuten.